

TXOKO KUTTUNAK

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA


[2026/03]

LEA-ARTIBAI,
MUTRIKU ETA
BUSTURIALDEA

HITZA



BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAUURIKO
ANTXOAK ETA
BOKARTAK**



**HEGALUZZEA
ETA
HEGALABURRA**



**ESKUZ
EGINDAKO
KROKETAK**



**BESTELAKO
GOURMET
PRODUKTUAK**

 Zuzeneko salmentaren udaberriko ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 9:00-15:00

 Online salmenta: www.tiendayurrita.com

sarean edota dendan erosteagatik



%20ko deskontua

Zuzeneko salmantan: 50 €-tik gorako erosketetan, maiatzaren 31ra arte erabilgarri (kupoi hau aurkeztuz)

Online salmantan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoa sartuz: #UDABERRI2026

 (+34) 629 51 54 14

 pedidos@yurritagroup.com

 Casa Mauleon Etxea

AURKIBIDEA

YURRITA (Mutriku) 2

ISPASTER 4

LEKEITIO 5

**MENDEXA ABENTURA PARK
+LEAKTIBAI (Karraspio) 6**

MENDEXA 7

AULESTI 8

MUNITIBAR 9

LEA IBARRA 10

ETXEBARRIA 11

ZIORTZA-BOLIBAR 12

MARKINA-XEMEIN 13

BERRIATUA 14

MUTRIKU 15

ONDARROA 16-17

BIZKAIKO TXAKOLINA 18

BASONDO (Kortezubi) 19

**ARROLAGUNE (Arratzu)
KAMIÑOKO (Muruetza) 20**

ARRATZU 21

**ATXARRE (Ibarrangelu)
ALMIKETXU (Bermeo) 22**

NABARNIZ 23

**AISTA LANDETxea (Ajangiz)
ITSASMENDI TXAKOLINA 24**

BUSTURIA 25

**IZKIRA URDAIBAI FERRYA
EKOIDEAK (Leioa) 26**

FORUA 27

**GAMETXO (Ibarrangelu)
OGOÑOPE (Ibarrangelu) 28**

GAUTEGIZ ARTEAGA 29

**BAKEAREN MUSEOA
(Gernika-Lumo) 30**

**EUSKAL SOUVENIRS
(Gernika-Lumo)
AUKA BIDAIAK (Gernika-Lu-
mo) 31**

32



Lore Bengoetxea

Etortzeko eta sentitzeko gonbidapena

Ondare aberatsez beterik daude Lea-Artibaiko, Mutrikuko nahiz Busturialdeko bazterrak. Txoko kuttuna izan daiteke eraikin bat, kale bat, paisaia bat zein begiratoki bat. Oroitzapenen kutxan gordeta ditugun momentuek bihurtzen dute sarritan leku bat berezi, eta orrialde hauetan horretarako hamaika leku eta momentu proposatzen dira. Ikusi, arnastu, usaindu eta sentitzeko eskaintza da honakoa.

Txokoz txoko ezagutuko duzu Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea. Zokondo maitagarri bezain ikusgarriak zain dituzu. Txundituta geratuko zara! Mailetan esperientzia ahaztezinak gordeta eta bihotza beteta itzuliko zara etxera. Bizi eta gozatu eskualde hauetako txoko kuttunetan!

**TXOKO
KUTTUNAK**
TURISMO GIDA
(2026/03)

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**

Lege gordailua: **BI-2906-03** · ISSN: **2173-7118**

Helbidea: **Arretxinaga Etorb. 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-6844436**

Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus**

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Testuak eta publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**



Argitalpen honek
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.

HITZA

Ispaster

ESKOLA



Lore Bengoetxea



Julen Rocha Lekerikabeaskoa,
Lur Garai Garate, Nagore Amias Zatika
eta Tere Bilbao Amorebieta

**«Eskolan denok elkar
zaintzen dugu; familia
bat osatzen dugu»**

Izan ere, lotura berezia daukate ispasterarrekin. Lur Garai Garate LH6ko ikasleak ere badio «berezia» dela, etxeko guztientzat seguruenik; gurasoak ere bertan ikasitakoak dira eta. Eskolako azken urtea ere badu berak, eta faltan botako dituen gauzak zerrendatu ditu: «Denak ezagutzea, elkarren lagunak izatea, elkarrekin jolastea...».

Elkar zaintzen

Julen Rocha Lekerikabeaskoa ikaskideak ere hala dio: «Hemen zer edo zer behar baduzu edo ondo ez bazaude, jende pilo bat daukazu zeuri laguntzeko». Eskola txikien abantaila omen. «Ekintza pila bat elkarrekin egiten ditugu, eta elkar zaintzen dugu. Familia bat osatzen dugu, eta igartzen da, ikasle ohiek ere normalean barikuetan bisitan etortzeko ohitura eduki ohi daukate eta», esan du Tere Bilbao Amorebieta zuzendariak.

«Bizitza erdi» darama Ispasterren eskolak ematen. Hortaz, badaki zer edo zer. «Orokorrean beharrezana badaukagu: leku duin bat behar dugu. Eta onerako izango da. Baina pena ikaragarria ematen digu; hori ezin dugu ukatu».

Mahaiaren bueltan batu dira lau lagun, hiru belaunaldiren ordezkari, herriko toki kuttunenetako bati buruz berba egiteko: eskola. Ez da eraikin irisgarria, oster, eta arrazoi horregatik, bota eta berria egingo dute; baldintzak beteko dituen eraikin bat. Erabakia onartzen dute, nahigabetuta daudela ezkutatu barik.

«Herrian galdetuz gero, gehienek esango dute pena daukatela eraikina botatzera doazelako», esan du Nagore Amias Zatika ikasle ohi, guraso eta eskolako irakasleak.



ISPASTERKO UDALA

Elexalde auzoa, 9-1. solairua
94-684 40 25
faxa: 94-624 34 70
udala@ispaster.eus
www.ispaster.eus

Lekeitio

HARRESIA



Lore Bengoetxea Ibazeta

Harresia da Aitor Leniz Atxabalen Lekeitioko toki kuttuna. Haren aztarna batzuk oraindik ikusi daitezke udalerriko hainbat puntutan, eta herria eta herritarrak haien bidez ikustera gonbidatzen du: kontatzen duten guztiaz jabetzera.

Horma itxiak eman dio forma Lekeitioko alde zaharrari, paisaia urbanistikoari. «Horrek mugatuta dago gaur egun ikusten dugun alde zaharreko eraikinen konfigurazioa», adierazi du Lenizek. Historiagile eta arkeologoak interes bereziarekin jarraitu ditu harresien inguruko azken ikerketa lanak. «Badakigu harresia XIV. mendean bere osotasunean eraikita zegoela —1.325eko hiri gutunean aipatzen da hesi bat zegoela—, baina orain egin dituzten ikerketen arabera, harresiko zati batzuek uste zena baino datazio zaharragoa eman dute. Beraz, ematen du arinagotik ere bazegoela harresia eraikita, hein handi batean. Badirudi, XIII. menderako bazegoela definitua», argitu du.

Harresia, uste zena baino zaharrago

Beste hainbat herritan modura, XIX. mendean harresiak bota ziren, «batetik, oztopo bat zirelako urbanistikoki herria zabaltzeko eta azpiegiturak egiteko, eta, bestetik, XIX. mendeko karlistadaren ostean foruak galdu eta gero, karga sinbolikoa galdu zuelako». Lekeition sei ate zeuden gutxienez, eta ez da gelditu bakar bat bera ere ez: «Harresia gaur egun puntu batzuetan integratuta geratu da. Eraikin berriagoen parte da».



**Aitor
Leniz Atxabal**
(Artxibozaina)

**«Harresiak mugatuta
dago alde zaharreko
eraikinen
konfigurazioa»**

Udaleko ondare taldeak —Leniz kide da— harresiaren gaineko ikerketak publiko egin nahi izan ditu, herritarrei helarazi, «ezagutza ez dadin gelditu bakarrik ikerlarien artean», eta ateak zeuden tokian, panelak jarri dituzte. Bertan, historialari, arkeologo eta ilustratzaileek, elkarlanean, ate bakoitzaren itxura birstortzen ahalegindu dira.

 **lekeitioturismo.eus**

TURISMO BULEGOA
Santa Elena Etorbidea, 2
94-684 40 17
turismo@lekeitio.eus

HITZA



**TURISMO AKTIBO
JASANGARRIA**

MENDEXA
Karraspio

MENDEXAKO UDALA




WWW.LEAKTIBAI.EUS

leaktibai@gmail.com

688 826 797



mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINA

Guztion neurriko zirkuitoak

6 Zirkuito

23 Tirolina

78 Erronka zuhaitz artean!

www.mendexapark.com

info@mendexapark.com

688 856 283



MENDEXAKO UDALA



Mendexa

MARIERROTA

Hitza

Marierrota inguruan hazi da Quincoces, eta huraxe du toki kuttun berak. «Zubi azpiko gune hori pila bat gustatzen zait; ontziola ingurua», esan du.

Salvajeko hondartza edo Karraspio txiki zituen jolas-leku txikitik, gozogintza lantegiaren azpian. «Amuma eta aittitta bertan bizi ziren, eta aitak bertan lan egiten zuen», dio. Gaur egun ez dabil urrun, kirola egitean ere sarri bertara jo ohi du-eta, urteko sasoiaren arabera, oraintxe piraguan edo padelean, oraintxe Lea ibilbidean aringa-arangan. «Gauza desberdinengatik, baina konturatzen naiz nire bizitzako etapa desberdinetan leku horri lotuta egon izan naizela», nabarmendu du.

Iraganaren oihartzunak

Ingurumariaren pisu historikoa ere aitagarria da, berak adierazi duenez. «Batetik, Marierrota eta ontziola bertan egon dira. Bestetik, antzina gure etxea bera burdinola izan zen, nahiz eta gero okindegi izatera pasa».

Muga-mugan dago suhiltzailearen bihotzeko lekua. «Bazterrak hainbat herritako sailak ukitzen ditu. Lekeitioko Mendietako ontziola aurrean zegoen, jauregia Ispasterkoa da, eta burdinola, Amorotokoa». Ez hori bakarrik: Leak itsasoarekin bat egiten duen puntua ere bada, eta badago «natur fenomeno bitxi bat», Quincocesek dioenez. «Momentu berezi bat dago: uxola dagoenean, hau da, Lea lur kolorez jaisten denean eta marea gora hasten denean, polit-polita da goitik ikustea erreka marroi-marroi jais-

ten, eta aldi berean, itsasotik marea gorantz. Marra batek bereizten ditu biak: itsasoko ura eta ibaiko. Eta momentu horretan gaztainakara koloreko ura goruntz egiten ikusten duzu. Momentu oso polita da».



Nahia Quincoces Altuna
(Suhiltzailea eta eskiatzailea)

«Konturatzen naiz bizitzako etapa desberdinetan leku horri lotuta egon naizela»



MENDEXAKO UDALA

Herriko plaza z/g
94-684 21 06/ 673 09 85 97
idazkaritza.mendexa@bizkaia.org
www.mendexa.net

HITZA

Aulesti

ILUNZAR TABERNA



Ainhoa Idoeta



Ainhoa
Idoeta
Arrillaga
(Dendaria)

«Aulesti herri bizia da, eta dauzkagun gauzak ondo zaintzen ditugu»

Ilunzar taberna da Ainhoa Idoeta aulestiarraren herriko toki kuttuna. «Bizipen asko pasa ditut bertan», esan du. Bertakoak batzeko tokia da bere esanetan, eta Aulesti bizirik dagoen beste adierazle bat.

1973ko ekainaren 24an zabaldu zuten, sanjuanetan. Idoetaren izebak ipini zuen martxan, eta amaren eta bien artean eraman zuten. Ume denboretan egin zuen lehenengo kontaktua, hortaz. «Nire lehenengo 10 urteak hortxe tabernan pasatu ditut», nabarmendu du. Gerora, berriro hartu zuen lekua barraren atzean. «Gure amak eta izebak eduki eta gero, handik urte batzuetara, nire lehengusinak

—izebaren alabak— eta biok hartu genuen, eta beste urte bi eduki genuen», azaldu du.

Herriaren izaeraren adierazleak

Gaur egun, bezero da. «Hamaika ordu sartzen ditugu bertan», dio. Ez da bakarra, «lehen zein orain», taberna batzeko puntua ere bada eta. Beraz, 53 urteren ostean, herriari zerbitzua ematen darrai. «Astegunetan Ubilla aterpetxea daukagu, eta asteburuetan, berriz, Ubilla eta Ilunzar».

Dendak ere izan ohi dira herritarrek elkartzeko lekua, eta hain zuzen, Idoetak darama Aulestikoa. «2021ean hartu nuen. Beste apustu bat». Idoetaren esanetan, hainbat zerbitzu martxan egoteak bertakoen izaera erakusten du. «Begira herriari: saltokia daukagu, eta txikia izan arren, jende asko etortzen da enkarguak egitera. Herrian taberna daukagu, eskola ere bai... Horrek ere zer edo zer esan nahi du. Izan ere, Aulestiko jendea oso aulestiarra da. Herri bizia da. Herri txikia da, eta gauza gehiago eduki beharko genituzke, baina dauzkagunak ondo zaintzen ditugu».



AULESTIKO UDALA

Donibane enparantza, 1
94-627 90 06
idazkaria@aulesti.eus
www.aulesti.eus

Munitibar

OIZ MENDIA



Iker Mintegia Mendieta

Oiz mendia du Iker Mintegia Mendieta munitibartarrak herriko toki kuttun, eta bertara joateko ohitura dauka, bai udan, bai neguan, apropos-aproposa dela baiteritzo, urtaro baterako zein besterako.

Antza, ez da txoko hori gustuko duen bakarra. «Pilo bat lagun joaten gara udako iluntzeetan, zoragarri egoten da eta. Elkarri proposatzen diogu, eta beti animatzen da jendea», esan du. Astean behin edo birritan falta barik igo ohi dira. «Plazan egon beharrean, zatarto egoten gara han mendi puntan. Alternatiba ederra da guretzat».

Lagunen bilgune

Mekanikoa lanbidez, Mintegia motorzalea da gaztetatik, eta motor zein rally lasterketetan ez ezik, uretako motorretan ere lehiatzen hasi da orain. «Airean ez momentuz, ez digutelako uzten!», dio. Dena dela, Oizera doanean, buruan ez dauka konpetizioa; ez du entrenatzeko erabiltzen. «Ez dauka zerikusirik nire zaletasunekin». Lagunekin gustura egoteko doa hara, haiekin kontuak esatera.

Udan bakarrik ez, neguan ere badu atsegin Oizera joatea: «Goietan elurra iragartzen dutenean, herrian egiten ez badu ere, Oizen beti dago. Eta guk horixe egiten dugu, leihotik burua atera, eta mendira begiratu. Eta zuri bada-go, elkar animatu, eta bagoaz bertara».

Tarteka oinez badoa ere, ohitura handiagoa dauka ibilgailuan joateko. «Oraintxe goaz autoan, oraintxe motorrean... Lantzean tramankulu batean. Eta bost minutuan



Iker
Mintegia
Mendieta
(Mekanikaria)

«Pilo bat lagun joaten
gara udako
iluntzeetan, zoragarri
egoten da eta»

bertan gaude. Niri neuri leku horrek lasaitasuna transmititzen dit», azaldu du.


Oiz 1.026 metro garai da, eta sineskeraren arabera, Mari jainkosaren bizilekuetako bat. Tradizioz, Gernikako Batzarretarako deia, besteak beste, Oiz menditik egiten zen.



Herriko plaza, 6
94-616 40 07

www.munitibar.org
alkatetza@munitibar.org
idazkaritza@munitibar.org

HITZA



www.leaibarra.eus



Ellexalde, 1 - 48289 GIZABURUAGA | tf.: 94-684 29 82 | leaibarra@bizkaia.org
Administrazioa: 94-684 29 82 • Ongizatea: 94-684 29 63 • Garapena: 94-684 44 23



**MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA**



**AULESTIKO
UDALA**



**GIZABURUAGAKO
UDALA**



**AMOROTOKO
UDALA**



**MENDEXAKO
UDALA**

Etxebarria



Lore Bengoetxea Ibazeta

Bidegorri buelta gustatzen zaio gehien Mikel Etxa-berri. Markina-Xemein eta Etxebarria lotzen ditu, eta jende askok aukeratzen du ibilaldia egiteko, batez ere, herri bietako bizilagunek, baina horiez gain, lagun ugari joan ohi dira bertara, inguruak erakarrita. «Erreka albotik doa, eta freskotasuna ematen du. Beroak hasten direnerako plan ona da», zehaztu du.

Etxebarritarrak dio edozeinek egiteko modukoa dela. «Ez da luzea; ez da gaitza», dio, zalantzan egon daitezkeenekin pentsatuta. Gainera, nabarmendu du Etxebarrian ez dagoela aparkatzeko arazorik. Hori ere badu alde proposamenak. Baina ustekabe atsegin gehiago ere badauzka bideak, Markina-Xemeindik datozenek bidegorria amaitzen den bueltan parke txiki bat aurkituko dute eta, umeentzako aproposa. Ur txorrotak daude eta skatea egiteko lekua. «Aulkiak eta mahaia daude, eta komun publikoa. Ez zaio ezer falta. Familia giroan egun pasa egiteko leku oso polita begitantzen zait», adierazi du.

Merendero eta guzti

Gainera, toki oso segurua da, esan duenez. «Kotxerik ez dago. Eta 100 metrora-edo, oinez joateko moduan, merenderoa dago, bidegorriaren alboan». Han ere ezin hobeto egon ahal da, Etxa-berriren ustez. «Bero badago, gerizpetan egoteko atsegina da, hondartzaren alternatiba bikaina. Barbakoa eta guzti dauka. Egunpasa ederra egin ahal da bertan».



**Mikel
Etxabe
Odriozola**
(Udaletxeko
behargina)

**«Familia giroan
egunpasa egiteko
leku oso polita
begitantzen zait»**

Udaletxeko langile den partetik, merenderoa zaintzea ere tokatzen zaio. Hori horrela izanda, ohar bat egin nahi du. «Jendea errespetua eskatu nahi diot; kristalekin-eta kontuz ibiltzeko, ze ume eta nagusiak ortozik ibiltzen dira. Beraz, denon artean garbi mantendu dezagun».



**ETXEBARRIKO
UDALA**

Peñanekua plaza, 1
94-616 64 32
udala.etxebarria@bizkaia.org
www.etxebarria.biz

HITZA

Ziortza-Bolibar

ZIORTZA



Javi Polo Gómez



Javi
Polo
Gómez
(Jubilatua)

**«Leku maitagarriena
Ziortza da. Harekin
maiteminduta nago
eta bakea ematen dit»**

Hiru leku kuttun dauzka Javi Polo salamancarrak Ziortza-Bolibarren: Ziortza, Munarrizko bidea eta Ziarregiko bideko ur jauzia. «Leku maitagarriena Ziortza da. Harekin maiteminduta nago. Lasaitasuna eta bakea transmititzen dizkit, eta nahiz eta kristau praktikantea ez izan, klaustroan edo elizan nagoe-nean, bake espiritualua sentitzen dut», adierazi du.

Bolibartik ordu erdira ere ez dago, eta bere esanetan, kolegiataz gain, natur balio handia ere badauka. «Edozein lekura begiratz gero, paisaia ezin ederragoa eta naturala da», nabarmendu du. Hori bai: ondo pres-

tatzea gomendatu du, makila eskuan eta oinetako egokia soinean, «jaistean laban egiteko arrisku handia dagoelako». Eta ohar bat egin du: «Gogoratu leku ederrak direla, baina baita historiaz beteak ere».

Egunerokorako aukerak

Ziortza oso gustuko izan arren, egunerokoan beste bide batzuk zapaltzen ditu. «Jubilatu naizenetik, egunean birritan noa Munarrizko kaminotik. Leku segurua da, eta oso polita», dio. Ez du aipatu barik utzi nahi Ziarregi. «Handik abiatuta, gurutze batekin topo egiten da. Ezkerretara egin da, 30 bat metrora, ur jauzi ikusgarria dago».

Polok badaki ondo non dagoen, euskara bere egina du eta. «Salamancatik Euskal Herrira etorri nintzenean, nire buruari hitz eman nion hemengo kultura ikasiko nuela, eta horren barruan, hizkuntza. Horixe dagokigu kanpotik gatozenoi. Zornotzan bizi nintzenean, hango euskaltegian egon nintzen, eta hona etortzean, nire maila hobetu nuen. Euskara ikasten dugunontzat kristoren laguntza da».



ZIORTZA-BOLIBARKO UDALA

Simon Bolibar plaza, 3
94-616 57 27
udala@ziortza-bolibar.eus
www.ziortza-bolibar.eus

Markina-Xemein

BARROETARAKO IBILBIDEA



Lore Bengoetxea Ibazeta

Giro bukolikoa. Horixe sortzen da Arretxinagatik Barroetarako ibilbidean Maria Ortega Zubiate-terentzat, eta horretxegatik du gustuko berak, herrian daudenetatik gustukoen.

«Aste barruan beharra amaitu ostean, zereginak egin eta gero arnasa hartu nahi duzunean, paseo hori aukera ona da», esan du kazetariak. Eta bidean topatzen duenak eszena iradokitzailea sortzen laguntzen du, haren arabera. «Iluntzerantz joaten naiz, eta bidean han topatzen ditut, bateko paittak, besteko jendea; batzuk, norbere modura oinez, eta beste batzuk ortuan lanean. Giro gozoa sortzen da. Eta, era berean, lasaia da; nasai paseatu ahal duzu. Bakeroekin joan nahi duzula? Ondo. Korrika egin nahi duzula? Ondo ere bai. Izan ere, jende asko ibiltzen da aringa-aringan ere».

Bidearen eraldaketa

Arretxinagatik Barroetarainoko bidea beti ezagutu izan duen arren, ez dauka zerikusirik orain urte batzuetakoarekin. «Lehen, auto pilo bat ibiltzen zen handik, ze Barroetako zelaira joateko bide bakarra zen, baina gero, autoentzako bide zuzena egin zuten errepidetik Barroetara, eta beste hau oinezkoentzat uzteko eskatu zen. Harrezkero, kotxe oso gutxi dabil», adierazi du.

Markina-Xemeinen ibiltzeko gune gehiago ere badaude, bai herri barruko bidegorria, bai Etxebarrirantz doana. «Bilatzen duzunaren arabera, horiek aukeratu ahal dituzu. Hala ere, nik nahiago dut hau. Gainera, pasealdia luzatzeko era ematen dizu, ze futbol zelaira jaisten zarenean, Beko-



Maria Ortega Zubiate
(Kazetaria)

«Aste barruan lana amaitu ostean arnasa hartu nahi duzunean, aukera ona da»

bentatik bidegorrira sartzen zara». Mendizaleek ere ondo ezagutzen dute, Akarregira igotzeko bertatik joan behar da eta.



Goikoportala, 3
94-616 74 54
WhatsApp:
688 84 49 95

udala@markina-xemein.eus
www.markinaxemeinturismoa.eus
www.markina-xemein.eus

Berriatua

ERREGE BIDEA



**Xabat
Lertxundi
Aiertza**
(Zinegilea)

**«Ondo etortzen zait,
ideiak antolatu eta
bide batez, kirol pixka
bat egiteko»**

Urteak pasatu ahala, txoko batzuek leku hartu dute Xabat Lertxundi Aiertza ikus-entzunezkoen egilearen toki kuttunen zerrendan. Berriatua eta Ondarroa arteko errege bidea da horietako bat.

Naturarekin ber konektatzeko

Lertxundi sarri ibili ohi da bertatik aringa-aringan, eta dio hiriburuan lanean emandako orduen ostean, naturarekin berriro konektatzeko baliatzen duela. «Ibilbide erraza denez, ondo etortzen zait, ideiak antolatu eta bide batez, kirol pixka bat egiteko», adierazi du. Bakarrik edo

konpainian, askotan jotzen du bertara. «Ibilbide atsegina da oinez egiteko ere, familiarekin eta umeekin. Ibilaldi jostalaria da, suge antzerako sigi-sagak eginez».

Bazterrok lehenagoko kontuez ere hitz egiten diote. «Herriko historiaren leku garrantzitsuetatik igarotzen da, esate baterako, Arantzibia dorretik», esan du. Eta bere zaletasun eta ofizioarentzat ere bada kitzikagarri, gune argiagoak eta itzalagoak ageri direlako —«azken batean, zinea ere argi itzal kontraste horretan datza»—, eta kontraste horretatik sortzen direlako emozioak.

Gauza txikietan ere jarri ohi du fokua, haien balioagatik eta xarmarengatik. «Ibilaldi honetan, adibidez, bat bada aipagarria: egurrezko zubia. Parez pare naturaren erretaula eder batekin egiten dugu topo. Ur jausi xume bat, nongo urek, xiri-xiri, labarretik Artibaira eramaten duten. Natur arnagune freskagarria da ibilaldian auspoa berotuta noanerako. Niri behintzat, bakea eta lasaitasuna transmititzen dizkirate. Badauka, gainera, japoniar jardinetako ur jauzien kutsua, nahiz eta batzuetan sasiak janda egon».



BERRIATUA ELIZATEKO UDALA

Herriko plaza, 1
94-613 70 30
faxa: 94-613 70 27
udala@berriatua.org
www.berriatua.org

Mutriku



PISZINA ZAHARRA

Aritz Larrea Arrizabalaga

Igerileku zaharra da Aritz Larrearentzat herriko tokirik bereziarena. Bizitzako garai desberdinekin lotzen du, eta luzaroan hari lotuta egoten jarraitu nahiko luke. Txikitako oroitzapenetan murgiltzean, Mutrikuko igerileku zaharra bistaratzen zaio. Hantxe erakutsi zioten gurasoek igerian; hantxe ematen zituen orduak familiarekin. «Gaur egun, lagunekin joaten naiz bertara», dio. Ez dira bakarrak, askoren aisialdirako hautua da eta. «Herritarrak batzeko lekua da», adierazi du.

Portuan beste igerileku bat badago ere, bera zahararren aldekoa da. «Berriak ez dauka zahararren xarma. Izan ere, gauza modernoak ez dira beti onerako: zaharrek beste edertasuna bat daukate, berrien aldean», esan du. Azken boladan, gainera, igerileku zaharrari dion estimua handitu egin da. «Mutrikuko portu berriko lanen gaiarekin, piszina zaharra galtzeko arriskuan ikusi dugu, eta herrian mobilizatu egin gara. Askotan, gauzei balio handiagoa ematen diegu ez dauzkagunean edo galbidean ikusten ditugunean, eta kasu honetan ere horrela izan da».

Igerileku naturala

Sinplea izanagatik, ez zaio ezer falta, haren esanetan. «Pare bat hormarekin, hor daukazu igerileku bat: naturala da, itsasoko urarekin funtzionatzen duena, mantentzen eskatzen ez duena eta urteko 365 egunetan 24 orduetan zabalik dagoena», nabarmendu du. Urte guztiko erabiltzaileak baditu ere, bera ez da multzo horretakoa.



**Aritz
Larrea
Arrizabalaga**
(Irakaslea eta
argazkilaria)

**«Lagunekin joaten
naiz piszinara, eta
herritarrak batzeko
lekua ere bada»**

«Tarteka-tarteka baino ez naiz neguan joaten, egun jakin batzuetan. Udan gustatzen zait niri igerileku zaharra».

Dio estetikoki eta argazkiak ateratzeko ere leku polita dela. Eta horretarako momentu aproposa identifikatuta dauka. «Onena, olatuak eta zurrunbiloak daudenean».



GEOPARKEA
EUSKAL KOSTALDEA - COSTA VASCA

GEOPARKEA · TURISMO BULEGOA

Txurruka plaza z/g

943-60 33 78

turismo@mutriku.net

www.mutriku.eus

HITZA

Ondarroa

KALIAN GORA, MARIA BEHERA



Poesia paretetan

Beste literatur ibilbide bi proposatu berri ditu Ondarroako Udalak Kalian gora, maria behera Ondarroako idazleen ibilbideak proiektuaren baitan. Oraingoan, Mikel Etxaburu eta Leire Bilbaoren eskutik emango dute urratsa literatur zaleek, eta herri oso bat deskubritu.

Ondarroak idazle ugari eman ditu, eta horietako lauren artean osatu da lehenengo uzta. Aurten, Bilbao eta Etxaburu batu dira iaz Ana Urkizak eta Kirmen Uribek urratutako bide-ra. Bilbaoren trazatuak *Ezkatak* du izenburu, eta sei geltoki, Saninazio kalean hasi eta Saturraran hondartzako bidearen erdiraino. *Mundua kontserba baten*, *Txitxarroa* eta *atuna*, *Etxeko urak*, *Umetako portua*, *Kalatxoriak* eta *Olatuak zenbatzen* dira izenburu iradokitzaileak. Bilbaok bota du karnata, literatur zaleak sareratu nahirik. «Arrainak, ezkatak, kalatxoriak, portua,.... aurkituko dituzu ibilbide literario honetan. Utzi urari bidea egin dezan eta berarekin eraman zaitzan. Poesia, ur tanta bat bezala, leku guztietan aurki baitaiteke».

Saturraranera bidean, Bilbaoren *Ezkatak* Etxabururen *Manttalingo Alaba* ibilbidearekin gurutzatzen da. Hauxe dio horren lemazainak: «Irakurriko dituzun hitzak biluzik daude, agian, zuk jantziko dituzu, eta entzun nahi baduzu, kontatuko dizut orain arte isildutakoa».



Ondarroa



KALIAN GORA, MARIA BEHERA



Izan ere, Etxaburuk memoriaren aldarria egin du puntatik puntara, hasi Itsasaurretik eta Saturraraneraino. Horretarako, zazpi geraleku baliatu ditu, horrela izendatuak: *Turruna, Galdutako gauzen bulegoa, Sekula ez dut jakin, Oroitzen zaitudanean, Egunean bitan, Zapata gorri solteak* eta *Oroitzen dugun hori gara*. Era horretara, hango kartzelan gatibu izan zituzten 4.000tik gora andrazkoei eta horien umeei gorazarre egin nahi izan die. Ildo horretatik, udalaren esku orrian jasota geratu da egilearen asmoa: «Ibilbide xamur eta sentiberaren bidez aurkezten dizkigu urrun sentitzera behartu gaituzten minak».

Herriarren prestutasuna

Geldialdiak plaken bidez seinaleztatu dira. Horieta batzuk etxe pribatuen hormetan jarri behar izan dituzte, eta oraingo honetan ere, udalak haiei eskerrak eman dizkie euren prestutasunarengatik. Plaketako QR kodeetan sartuta, idazlea agertuko zaie kontalari eta anfitrioi.

Erakundea oso eskertuta dago artisten ekarpenarengatik. «Herriak idazle ugari eman ditu, eta ibilbide hauekin zer edo zelan horien lana aitortu nahi da, ze bakoitzak berezko kontatera eta estiloa eduki arren, denek daukate komunean kresalak bustitakoak direla: denen lanetan beti agertzen da Ondarroa zer edo zelan; bere izaera», azaldu du Maite Rey euskara teknikariak. Hori kanpotarrentzat ere bada xarmagarri. «Giro eta paisaia ederrez gozatuz batera, paisaia horiek literaturarekin ere lotu ahalko dituzte», nabarmendu du. Proiektua hauspotzea da udalaren hurrengo zeregina, hura jende askorengana heldu ahal dela eta. «Taldeentzat interesgarria izan daiteke. Besteak beste, euskara ikasle eta irakasleentzat, familientzat eta literatur tailerretako eta irakurle taldeetako kideentzat izan daiteke erakargarria, zeren eta esperientziaren osagarri, geure euskara entzun eta praktikatzeko aukera edukiko dute, herriko altxor literarioaz gozatzeaz bat. Azken batean, helburua hori ere bada: Ondarroa euskal kulturaren baitan kokatzea. Inor badator Ondarroara, datorrela herriak euskal kulturaren lekua daukalako».



Ibilbideaz gozatzeko aholkuak:

- Erabili mugikorra geldialdietako QR kodeak eskaneatzeko eta idazleen bideoak ikusteko.
- Irakurri paneltxoetako informazioa, bakoitzak txoko eta istorio ezberdin bat azaleratzen duelako.
- Saiatu ibilbidea goizean edo arratsaldean egiten, argi naturalak herriko kaleak beste modu batean nabarmentzen baititu.
- Gelditu eta arnastu Ondarroako itsas usaina. Bertako giroak literaturaren testuingurua sakonduko dizu.
- Ikuspegi zabalak topatuko dituzu kairik kai, geldialdi bakoitzean paisaia eta giroa gozatuz.
- Euskaraz egin zure esperientzia, hitzen magia tokian tokiko hizkuntzan bizi dadin.

Ibilbideei buruzko informazio guztia, turismo bulegoan eta udalbarriak.eus web orriaren atal berezian.



ONDARROAKO UDALA



TURISMO BULEGOA · 94-683 19 51
Erribera, 9 (Kofradia Zaharra)
turismobulegoa@ondarroa.eus
www.ondarroa.eus
www.udalbarriak.eus

DEITURA

JATORRI

Bizkai-
ko Txakolina.

DENOMINACIÓN

DE ORIGEN



Zure Plana!



Lurra, itsasoa, mendia, nortasuna,
gastronomia, kultura, historia ...
Izen propioa duen ardoa: Txakolina.

Dastatu, ezagutu eta gozatu Bizkaiko
Txakolina!



Ezagutu Bizkaiko
upategiak

bizkaikotxakolina.eus

Edan neurritz, zure ardura da.



Kortezubi



BISITA MOTAK

Norbanakoak:

Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu (jaiotzak, espezie berriak...). Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak (euskaraz eta gaztelaniaz). Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri guztiak azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta (haur zein nerabeak). Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Astelehenetik ostiralera:

11:00etatik 15:00etara.

Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:

11:00etatik 18:00etara.

PREZIOAK

Norbanakoak: Helduak 10 euro eta umeak 6.

Taldeak: Bisita gidatuetakoko erreserba egin behar da. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, sarrera ordaindu eta gidaria dohainik izango da. 20 pertsonatik beherako taldeek, 35 euro ordaindu beharko dituzte gidaria eduki nahi izanez gero.



Basondo, basafaunaren babesleku

Animalia basatiek ere badute beraien etxea Euskal Herrian, eta Basondo da horietako bat. Zoologikoa izatetik urrun, bertako basafaunaren babeslekua da Basondo. Arrazoi desberdinak tarteko, bertan dauden animaliak ezin dira naturan askatasunean bizi, oreinak, otsoak, katamotza, sai arrea eta putrea, esaterako.

Animalia hauek zaindu eta sentibilizazio lana egitea dute helburu, irabazi asmorik gabe. Animalia gehienak errekupeazio zentroetatik datozenak dira, eta gertutik ikusi eta kontaktu

zuzena edukitzeko aukera dago kilometro bateko ibilbidean zehar, nahi izanez gero, azalpenez lagunduta.

Faunaren aterpe izateaz gain, geologia eta botanika berezi batek inguratzen du Basondo. Euskal Herriko basoa ikusi daiteke bertan, arestiekin, esaterako. Parean, babesitutako gunea dago: artadi kantauriarra. Kareharria da bertako lurra, eta horrek dolinak eta kobazuloak egotea errazten du. Horietako bat, esaterako, Basondoko ibilbidearen barruan ikusi daiteke.

BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi

94-625 44 36

info@basondo.com

www.basondo.com





Arrolagune


Arrolako Oppidum-aren
Interpretazio Zentroa

IGANDE GUZTIETAN ZABALIK

10:00 - 14:00

ARRATZU, Loiola Auzoa

SARRERA DOAN



Bizkaia
foru aldundia
oponazioa fuzal



Visit
Urdaibai
© bai Nueva Europa



634 243 762




Kamiñoko
erretegia • jatetxea

Gernika-Bermeo errepidea
94-625 51 46 MURUETA
kaminokomotxo.com




Urdaibai bihotzean kokatuta dago Kamiñoko jatetxea. 2012an Motxok eta bere talde profesionalak ireki zituzten berriro jatetxeko ateak. Haragietan, arrainetan eta euskal sukaldaritza tradizionalan espezializatuta gaude. Lau jangela zabal ditugu 700 lagunentzako lekuarekin.



Arratzu

ERREKA ETA ELORRIAGA



Adolfo Arejita Oñarteetxebarria

Dio Adolfo Arejita hizkuntzalariak aberri txiki bi dauzkala: bata Morga, hangoa delako semez, eta bestea Arratzuko Barruti auzoa, bertara ezkondu zelako eta bertan egin duelako familia. Hartu duen herrian, era berean, bi leku ditu kuttun, «bata Arratzuko errekie eta bestea Elorriaga auzoa (berbaz, Elorridxa), herriz, Kortezubi».

Errekaren bidea deskribatu du. «Erreka hori goietatik dator, hainbat lekutatik, eta Gernikako errioarekin bat egiten du aurrerago. Arratzuko beherengo partean daude gure landak eta gure bizimodua, eta sarri joan izan naiz errekarara umeekin, belar sikuak egiten izan ditugunean, uretan freskatzera edo bainu txiki bat hartzera». Oraina lehenarekin lotu du berak, eta uron balio historikoa ere nabarmendu. «Lehenago ere, gure herrietan urik ez zegoen, Barrutiko andrak errekarara joaten izan dira laban harrian *bogadea* egitera (arropak garbitzera), eta ganadua ere horra eroan izan da ura edaten. Erreka hori auzoaren bizitza izan da beti», esan du.

Lehengo bizimoduaren testigu

Mendi tontorrean dago euskaltzainaren beste toki kuttuna, Elorriaga auzoa («ahozkeran, *Elorridxa*»), elorri lekua izandakoa izenak erakusten duenez. Herriz Kortezubi izanagatik, Arratzurekin lotzen du berak. «Auzo hori gure partetik hurrengoa da, eta *Elorridxatik* aurrera hurrengo auzoa, Belendiz, bigarren nukleoa izan da; zerbitzugunea. Bertakoek hantxe egiten zuten bizimodu guztia, Loiolara joan beharrik barik, ze eliza zeukaten —orain ere hantxe dago—, eta eskolak, Bizkaiko herri askotan egon izan diren



Adolfo Arejita Oñarteetxebarria
(Hizkuntzalaria eta euskaltzaina)

«Herrietan urik ez zegoenean, errekarako laban harrian garbitzen ziren arropak»

modura», gogorarazi du. Esanahi handiko lekua da Arejita- ren ustez. «Auzo zoragarria da, baserrietxez josia. Lehengo bizimoduaren testigu bizia da, paraje oso euskalduna eta nortasun handikoa».



ARRATZUKO UDALA

Loiola auzoa, 2
94-625 68 84
udala@arratzu.eus
www.arratzu.eus





ATXARRE

Taberna kafetegia

Antzora, 24 Laidako Hondartza 48311 Ibarrangelu 94 627 65 67




Almiketxu

Erretegia

Almike Auzoa, 8 Bermeo
94-688 09 25
almiketxu@gmail.com
www.almiketxu.com



Nabarniz

ONDARO ETA ZAZPILEIZETAKO KOBAZULOAK

Iñaki Urdanpilleta Urkia

Ondaroko eta Zazpileizetako kobazuloak dira Iñaki Urdanpilleta Urkia etxebarritarren Nabarnizko tokirik kuttunenak. Hara bizitzera joan zenean eduki zuen haitzuloon berri, orain 25 urte. «Gutxi gorabehera esan zidaten non zeuden; ez nituen berehala aurkitu, ostera, seinalizatu barik zeuden eta. Bilatu nituenean, ilusio handia egin zidan, batetik, neuk bakarrik topatu nituelako, eta bestetik, altxor batekin topo egitea legez izan zelako». Momentu hori oso bizi dauka. «Estreinako joan nintzen hartan, pentsatzen hasi nintzen orain dela 15.000-20.000 urte han jendea bizi zela, eta norbera han bakarrik sartuta egotea oso magikoa egin zitzaidan», gogorarazi du.

Kobaz jositako eskualdea

Leizeotara joateko, Omaranzko bidea hartu behar da, artadi barrutik. Mendi malda batean daude biak: beherago Ondaro eta gorago Zazpileizeak; bata bestearengandik 400 metrora. ADES espeleologia taldeak bi formakuntzak jasoak ditu *Urdaibai: Catálogo de Cuevas y Simas* liburuan. Bertan, 233 koba edo sarrera daude katalogatuta, tartean, Nabarnizkoak. «Alde hau guztia gazta baten modukoa da. Kalkarioa da, eta kobaz josita dago. Nagusiena Santimamiñe den arren, eta hauek haren aldean txikitxoak, guretzat oso kuttunak dira».

Lehenengo bisita hartatik urte batzuk joan dira. Harrezkero, lagunekin, familian edo mendiko kuadrillarekin ere bisitatu ditu —Zazpileizetan gaur egun ezin daiteke sartu. Galarazo egin dute, arriskutsua dela eta—. «Leku polit



Iñaki
Urdanpilleta
Urkia
(Kazetaria)

«Estreinako
joan nintzenean,
han bakarrik sartuta
egotea oso magikoa
izan zen»


asko dauzka Nabarnizek, baina nire altxortxuak horietxek dira. Han nagoelarik, gustatzen zait pentsatzea orain dela milaka urte pertsonak bizi izan zirela han».




NABARNIZKO UDALA

Elelalde auzoa, 2
94-625 50 77
faxa: 94-625 65 12
udala@nabarniz.eus
www.nabarniz.eus

HITZA



Guztirik deskonektatzeko baina guztirik gertu!
ZURE LANDETxea URDAIBAiko BIHOTZean



ITSAS MENDI

7

ITSAS MENDI

Denboraren erronka
onartu duen Txakolina.

bodegasitsasmendi.com
artizarenoturismo.com

Busturia

SAN ANTONIO HONDARTZA



Ainhoa Elorriaga

Busturiko Atxurkulu emakumeen elkartekoak bat datoz esatean San Antonio hondartza dela herriko euren tokirik kuttunena. 2026ko Bizkaiko Foru Aldundiaren Zirgari saria jaso berritan, egokia iruditu zaie hari erreferentzia egitea, itsasoari begira egonik, ikurrari izena ematen dion emakumeen lanbidea akordarazten dien lekua delako, besteak beste.

Udalak proposatu zuen Atxurkuluren hautagaitza, «udalerrian egin duten lana ikusaraztearren eta lan hori balioestearren»; baita aldundiak eman ere, «26 urtez Busturiko kultur-jarduerak, herri-jaiak, boluntariotza gaiak eta topaguneak antolatu eta emakumeen saretzea erreferentzia komunitario bihur daitekeela erakusteagatik». Beraz, bisitariak jakin behar du emakume talde horren lanaren fruitu direla herria bizi-bizi mantentzen duten hainbat eta hainbat ekimen. Eurek, era berean, beste batzuegan jarri dute arreta; beste bidegile batzuegan.

Soka ez dadila eten

Zirgariak zirga izeneko soka luze batetik tiraka itsasontziak ertzero edo itsasadarrean gora mugitzen zituzten emakumeak ziren. Emakumeentzat debekatuta zegoen lanbidea izan arren, karlistaldietan gizonek alde egin behar izan zuten, emakumeek egin behar izan zuten lan hori. Bada, Atxurkuluk ere badauka hortik zer edo zer, udalak gogorarazi duenez, Atxurkulukoek ere tradizionalki gizonenak izan diren ekintzak euren hartu eta feminizatu egin dituzte eta. «Hondartzan egonik, emakume haien beharra



Adelaida Lazkano, Biotza Arauka eta Yolanda Vara

(Atxurkulu emakume elkartekoak)

**«Hondartza aurrean,
itsasoari begira,
zirgarien lana
gogoratzen dugu»**

gogoratzen dugu —esan dute sarituek—. Herritarrontzat batzeko lekua da, denona, eta era berean, aurrera begira jarritz gero, emakumeek itsasoko lanbideari egindako ekarpenaz gogoratzen gara».



BUSTURIKO UDALA

Axpe, 1
94-687 00 50
www.busturia.eus
alkatea@busturia.eus

HITZA



Mundaka - Laida - Sukarrieta FERRYA
ERRESERBAK, ONLINE

**IZKIRA
URDAIBAI**

TXANGO BEREZIAK:

- Geoturismoa Ingurumen Hezkuntza eta itsasadarra itsasbide geologikoa
- Mundaka-Elantxobe itsasbidea
- Urdaibaiko mareen arrastoaren itsasbidea
- Mundaka-Gatzelugatxe itsasbidea

www.izkiraurdaibai.com · 633 33 12 30

Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?

Oka ibaiaren estuarioaren ezkerlaldean eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: flysch-ak, diapiroak, dunak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu. Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. **Begiratu nahi al duzu?**



EKOBIIDEAK

Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaien baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Kontaktua:

666 85 77 61
688 62 72 42


ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com



*Geoturismoa eta
Ingurumen
Hezkuntza...
hitzak eta zeozer
gehiago!*

Forua



TRIÑE

Hitza



**Amaia
Uribe
Astorkia**
(Kazetaria)

**«Kanpoan bizi
nintzenean, hona
etorri eta esaten nuen:
'Hau da nire lekua'»**

Amaia Uribek Foruko Triñe auzora jotzen du bake bila doanean, bai, bertatik itsasadarra ikusten delako, bai haurtzaroarekin lotzen duelako. «Auzoaren oroitzapen oso onak dauzkat. Umetan, askotan joaten nintzen hara, lagunekin bizikletan edo oinez denbora pasan. Askatasun sentazio handia ematen zigun, eta orduak ematen genituen bertan», esan du.

Jauzi handia dago Forutik hainbat urtez bizitoki izan duen New Yorkera. «Txikitan libre zenbiltzala sentitzea, bakarrik ibiltzea, gauza handia zen. Horrek kontrastate handia egiten zuen Ameriketako Estatu Batuekin. Han bizi nintzen garaian, hona etorri bakoitzean, Triñera joatea gustatzen zitzaidan, ze etxean nengoela sentiarazten zidan. 'Hau da nire lekua' esaten nuen neurekiko».

San Gregorio

Maiatzaren 9an erromeria egiten da San Gregorio baseliazaren bueltan, eta horren inguruan ere badauka aipatzeko zer edo zer. «Badirudi baselizak ez duela sekreturik gordeko, baina historia dauka, ze barruko erretaula Gernikako San Juan elizakoa da, 37ko bonbardaketan suntsitutako elizakoa. Gainera, San Gregorioko baselizan erromatar garaiko hilarriak topatu zituzten».

Forukoentzat leku berezia da. «Nahiz eta ingurukoentzat Foruko lekurik ezagunena ez izan, bertokoentzat kuttuna da, eta ibilaldian goaz bertatik: Forutik Triñera igo, eta handik erreka bazterreko pasealekura bajatu ahal

zara. Orain ere, lasaitasuna behar dudanean, bertara joaten naiz. Bakea ematen dit», adierazi du.

Bestalde, sustraiak ez dauzka ezkutatzeko. «Nik beti argi uzten dut forutarra naizela. Forugatik naiz naizena, eta kazetaritzan nire lehen urratsak ematen ikusi nau».



FORUKO UDALA

Elejalde auzoa, 1
94-625 51 16
94-625 51 80

idazkaritza.forua@bizkaia.org
www.forua.net

Ogoñope

SURF IKASTAROAK

LAGAKO HONDARTZA



Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€

Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com

664579954

Sentrazioz betetako tokia

HOTEL gametxo



Gametxo Auzoa | Ibarrangelu | 94 627 77 10

Gautegiz Arteaga



Alfonso Aberasturi Olabarriaga

Herririk politena da Gautegiz Arteaga Alfonso Aberasturirentzat, eta, gainera, ez zaio ezer falta, bere esanetan. «Arteaga modukorik ez dago», dio txakolingileak. Hitz onak baino ez dauzka bere herriarentzat Aberasturik. «Herriak dena dauka: itsasoa, alderdi batetik, eta mendia bestetik. Bertako edozein leku da polita», adierazi du. Kirolzaleentzat aproposa da bere irudiko, bai frontoia, bai pasealeku ederrak dauzkalako, adibidez, Arteatik Gernikaraino erreka izkinatik. Ondo kokatuta dagoela ere nabarmendu du, nahi Gernikatik, nahi Bilbotik hurrean, eta hondartza ere eskura daukala. «Zer gehiago nahi duzu, bada?».

Baserri lana

Arteaga bizitzeko ezin hobea da, haren arabera. «Ile-apaindegia dauka, eskola txikia —oso garrantzitsua herri batentzat—, mekanika tailerra, tabernak, jatetxea, lau jai urtean... horrelako herririk ez dago!». Dio baserri lanak egiteko ere egokia dela, leuna, eta, hain zuzen, onartzen du batez ere, baserri ingurua gustatzen zaiola berari gehien, ezagutu ere beti horixe ezagutu izan du eta. Hain zuzen, gaztelu alboan dauka mahastia. Gauza ederra da beretzat denbora bertan lanean ematea, nahiz eta gogorra dela onartu. Halaxe dio: «Ikusten duzunean egiten duzun lanaren fruitua, poztasun itzela ematen du».

Beraz, Gautegiz Arteagara bisitan joanez gero, ez arraroa egin Aberasturi mahastian lanean bilatzea. Gustuko lekua du hura. Paseatzen doazen artean, hori bai, bereizi egiten ditu interesa erakutsi, eta gelditzen dire-



Alfonso
Aberasturi
Olabarriaga
(Txakolingilea)

«Batzuk nirekin hitz egiten gelditzen dira, mahastizaintza lana ezagutzen dutelako»

nak: «Batzuek, errioxarrek, esate baterako, gelditu eta nirekin hitz egiteko ohitura daukate, badakitelako zenbat eta zenbat lan dagoen mahastizaintzaren atzean».



**GAUTEGIZ
ARTEAGAKO
UDALA**

Herriko enparantza, 1
94-625 29 53

udala@egautegizarteaga.eus

www.turismogautegizarteaga.eus

HITZA

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

Erakusketa iraunkorra



- 1 Zer da bakea?
- 2 Zein ondare utzi digu Gernikako bonbardaketak?
- 3 Bizitako bonbaketa
- 4 Zer gertatzen da gaur egun munduan Giza Eskubideekin?

museoa@bakearenmuseoagernika.eus

<https://museodelapaz.eus>

94-627 02 13



MARTXOA-URRIA ORDUTEGIA

**Astelehena
eta igandea**

10:00 - 14:30

Astearte-Larunbata

10:00 - 19:00

* Larunbat arratsaldeetan, doan

EUSKAL SOUVENIRS



Andra Mari kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94-625 19 30/ 685 75 81 02
www.euskalsouvenirs.com
euskal.souvenirs@gmail.com

«Adituak gara gure historia kontatzen duten xehetasunetan»

Euskal Souvenirs Euskal Herriko kultura-
rekin lotutako produktueta espezializa-
tutako denda da. Gernikaren bihotzean,
1993tik darama Euskal Herriko esentzia
munduarekin partekatzen. «Hemen beti-be-
tikoa aurkituko duzu, bai zure etxea harrota-
sunez apaintzeko, bai gure lurraren zati txiki
bat eramateko. Adituak gara gure historia kon-
tatzen duten xehetasunetan», adierazi dute.

Gernikatik mundura

Denda fisikoa turismo bulegoaren aldamenean
badago ere, Internet bidezko zerbitzuak nabarmen
egin du gora. Horrek nazioartean kokatu du, mar-
ka-irudia bereizgarri duela: «Estetika klasikoa eta
benetakoa du, bizitza guztikoa, eta publikoak asko
baloratzen du hori». Bestalde, erosleen artean, dene-
tarik dago. «Nahiz eta turismo nazionala nabarmen
hazi, bezeroaren zati handi bat oraindik bertakoa da,
Gernika ingurukoa, nortasun propioa duten objek-
tuak bilatzen dituen jendea».

Etorkizunera begira, euskal kulturaren sustape-
nean erreferente izaten jarraitu nahi du, bai modu
fisikoan, Gernikan, bai maila globalean, Internet
bidez.

CIE: 2260
auka
bidaiak

Fray Martin de Murua, 29
GERNIKA-LUMO
94-625 74 14 · 688 68 63 45
auka@auka.eu





ABENTURA ETA NATURAZ GOZATZEKO 11 AUKERA

946 276 661 / 688 635 190

www.urdaibai.com / info@urdaibai.com



IKASTEETXE TALDEENTZAT EGITARAU BEREZIAK

946 243 586 / 688 802 681

www.urlekitio.com / info@urlekeitio.com

